



BGME-ko TEKNIKOEN ARTEAN SARTZEKO IRIZPIDEAK

DEIALDIAREN XEDEA:

Federazio honek espezialitate desberdinetako ikastaroak eta formakuntzak burutzeko behar dituen monitoreen lan poltsa bat sortzea (ikusi gaur egungo ikastaroen erlazioa, BMF-ko web orrian aldaketak egon daitezke).

Zerbitzu hau larunbat eta igandeetan burutuko da lehentasunez, goizez eta arratsaldez, ikastaro bakoitzaren arabera, etab.

Lan erlazioa, monitoreak lan egindako ikastaro bakoitzerako baino ez da izango.

HAUTAGAIEN BALDINTZAK:

Hautatze prozesuan parte hartzeko hurrengo beharko da:

- 1. Adin nagusia izatea.**
- 2. Hurrengo modalitateetan titulaturia izatea: Mendi Ertainean, Arroila jaitsieran, Eskaladan edota Goi Mendian.**

Betekizunak eskaera egiterako orduan bete beharko dira. Baldintza hau betetzen ez duten hautagaiak ez dira kontuan hartuko.

ESKAEREN AURKEZPENA ETA HAUTAGAIEN ONARPENA:

Hautatze prozesu honetan parte hartzeko eskaerak 2023ko **urriaren 31tik azaroaren 17ra arte** (biak barne) aurkeztu ahaliko dira: aurrez aurre BMF-ko bulegoan (Martin Barua Pikaza, 27- 4. solairu-bulego ordutegian) edo emailaren bidez info@bmf-fvm.org.

Epez kanpo aurkezten diren epeak ez dira kontuan hartuko.

Eskaera orriarekin batera hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

NANaren kopia.

Postua lortzeko eskatzen den Titulazioaren kopia

Hautatze prozesu honetan adierazitako merituak baloratzeko beharrezko dokumentazioaren kopia eta zerrenda.

Prozesu honetan parte hartzen duten hautagaiek automatikoki izaera pertsonaleko datuen gainean indarrean dagoen araudia jarraituz, burutzen diren argitalpenetan identifikatzeko baimena emango dute.

Hautespen prozesu osoa zuzentzen duen publizitate printzipioa dela eta, hautagaiak



bere datuen lagapena baimenduko ez balu, ez da bere eskaera onartuko, organo deitzaileari bere sarbide, zuzentze, ezeztatze eta aurkaratze eskubideak erabili ahal dituela jakinaraziz.

MERITUEN BALORAZIOA:

A. Titulazio akademikoak:

2. mailako KT Mendi Ertaineko espezialitatea **2 puntu**

2. mailako KT Arroila jaitsierako espezialitatea **2,5 puntu**

2. mailako KT Goi Mendiko espezialitatea **2,5 puntu**

2. mailako KT Eskalada espezialitatea **2,5 puntu**

3 mailako KT Goi Mendiko espezialitatea **3 puntu**

3 mailako KT Eskalada espezialitatea **3 puntu**

Goi mailako titulazioa edo graduatua eta Kirol eta jarduera Fisikoko Zientzietan Masterra **0,5 puntu**

CAP edo gaitasun didaktiko eta pedagogikoan masterra **0,5 puntu**

Euskara B1 maila **0,25 puntu**

Euskara B2 maila **0,5 puntu**

Euskara C1-EGA maila **0,75 puntu**

Euskara C2 maila **puntu 1**

B. Elkarrizketa pertsonala: gehienez 5 puntuko puntuazioa izango du.

PROZESUAREN GARAPENA:

Parte hartze eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, hauek BMF-ko Zuzendaritza Batzordeari helaraziko zaizkio, deialdiko gutxienerako eskakizunak betetzen dutela ziurtatu ondoren, hautagaiak adierazitako meritua bi fasetan balora ditzaten. BGMEko monitore bezala lan egiteko bi faseak gainditzea derrigorrezkoa izango da:

A. "Merituen balorazioa" lehen fasea gainditzeko 2 puntu lortu beharko dira gutxienez.

B. Elkarrizketa pertsonalaren fasea gainditzeko gutxienez **2,5 puntu** beharko dira.

Jarraian, Zuzendaritza Batzordeak eskatutako gutxienera betetzen duten pertsonen erlazioa argitaratuko du.

Era berean, eskaintza honek ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eta eskatutako gutxienerako puntuetara iristen ez diren eta horrenbestez BGME-ko monitore bezala lan egin ezin duten hautagaitzak argitaratuko dira.

Akordio horren aurka, pertsona hautagaiak erreklamazioa egin ahalko du eta horretarako hiru egun baliodun izango ditu argitaratze egun horretatik aurrera, erreklamazio hori Zuzendaritza Batzordeak ebatziko duelarik.

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA



***Euskal Goimendi Eskola
Bizkaia***



BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA

Martin Barua Picaza 27, 4^a Pl.
48003 BILBO

☎ 94 443 17 34

info@bmf-fvm.org